

## PARTE HARTZE BATERATUKO DEIALDIA Z- ZULIEFERMESSE 2021 ONLINE - 2021 martxoare 2 eta 3a

**Data:** martxoaren 2-3

**Ekitaldia:** Z-Zuliefermesse Feria

**IZEN-EMATEA**

Gipuzkoako Bazkondeak, Espainiako Ganberekin lankidetzan, **Z - ZULIEFERMESSE** ferian parte-hartze bateratua antolatzen du. Azoka *modalitate birtualean* egingo da, **2021eko martxoaren 2an eta 3an**.

**Z feria** bi urtean behin egiten den feria da, eta industria-azpikontratazioko enpresei zuzendua dago eskusiboki.

2019ko azken edizioan 365 enpresak hartu zuten parte. Horietatik % 73 Alemaniako enpresak ziren. Kopuru txikiagoan, Poloniako, Txekiako eta Italiako enpresek ere parte hartu zuten.

Feria INTEC makina-erremintaren feriarekin batera egiten da, eta bisitari gehiago erakartzen ditu. Bi azoken artean 13.000 erakusketari eta 24.200 bisitari baino gehiago bildu ziren.

*Online* feria honetan parte hartzea garrantzitsua da Espainiako enpresek Alemaniako merkatuan duten presentziari eusteko. Feria presentzialaren hurrengo edizioa 2023ko lehen hiruhilekoan egitea aurreikusten da.

**Izen emate epea 2021ko otsailaren 12an bukatuko da.** Parte-hartze baldintzak, epeak edo izen-emateari buruzko informazio gehiago behar baduzu, deskargatu deialdiaren dokumentua.

[DEIALDIA](#)

### Informazioa

Ane Aguirrezabala - 943 000 322- [aaguirrezabala@camaragipuzkoa.com](mailto:aaguirrezabala@camaragipuzkoa.com)